

BANDOA (B8/2020)

COVID-19 KORONABIRUSA

Gobernuko agintariek koronabirusaren transmisioaren prebentzioari buruz emandako gomendioei jarraituz,

JAKINARAZTEN DUT:

1. Udal eraikin eta instalazio hauek **itxita egongo dira** beste abisu bat eman arte:

Kultur Etxea
Beralandeta
Liburutegia
Musika Eskola
Mukixu Haur Eskola
Matzada futbol zelaia
Kiroldegia
Eztegara pilotalekua

2. Udaletxeko bulegoek zabalik jarraituko dute, oraingoz. Ildo horretan, Udal honek lehentasuna duenez langileen osasuna babesteari dagokionez, **herritarrek behar-beharrezkoa denean bakarrik joan beharko duzue udal-bulegoetara, eta gomendatutako higiene- eta prebentzio-neurriak hartuta beti**. Lehentasunezkoa izango da kontsultak telefono bidez egitea -948630005- eta eskaerak eta izapideak.egoitza elektronikoko bidez (<https://sedeelectronica.bera.eus/eu/> ERREGISTRO ELEKTRONIKOA).

3. Herritarrei gomendatzen dizuet osasun-agintarien gomendioak jarraitzea:
<https://coronavirus.navarra.es/eu/>

Denek jakin dezazuen argitaratzen da, eta herritarrei eskerrak ematen dizuet zuen ulermenarengatik neurri horiek aplikatzeagatik.

Beran, 2020ko martxoaren 13an.

ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.